

JANARIA BOTA ETA BOTA

Jarduera honekin, zera landuko dugu

Janaria ekoizten denetik kontsumitzen denera arteko faseak eta eragileak.
Janaria botatzearen aurrean kontziente izatea.
Kontsumitzaile gisa arduraz jokatzeta.
Garapen jasangarrirako 2., 12., 14. eta 15. helburuak.

Iraupena

Saio bat.

Beharke dugun materiala

Plastikozko janariak erabiltzea litzateke egokiena. Hori posible ez bada, pilotak edo eraikuntzako piezak erabil ditzakezue; nolabaiteko tamaina duen edozer, jarduera bisuala izango baita batik bat. Gutxienez 45 pieza beharke lirateke, gure ustez.

Zikloak 2, 3

Aurretiazko oharra

Erabiliko duzuen piezen kopuruaren arabekoak izango dira zenbatekoak. Guk gomendatzen dugun bezala 45 pieza erabiliz gero, zenbatekoak hauek lirateke:

Elikagaien 1/3 botako duzue zakarrontzira; 15 pieza, alegia.

Elikagaien katean dagoen eragile bakoitzak zakarrontzira botako dituen janari piezak zerrenda honetako ehunekoaren arabekoak izango dira¹:

Ekoiztean: 2 pieza (% 11).

Prozesatzean eta banatzean: 3 pieza (% 19).

Saltzean: 1 pieza (% 5).

Elikadurarekin lotutako zerbitzuetan

(jatetxeak, ospitaleetako sukaldeak, ikastetxeetakoak, etab.): 2 pieza (% 12).

Etxeetan: 8 pieza (% 50).

Eranskinetako txartelak zuzen utziko ditugu, piezen kopuruak aldatzen badira ere.

Garapena

Elikagaien katean parte hartzen duten eragileak zein diren idatziko dugu arbelean:

Ekoizlea – Prozesatzailea/garraiatzailea – Saltzailea (txikizkariak eta handizkariak) – Kontsumitzailea

Esan neska-mutilei ikusiko dugula elikagaiak ekoizten direnetik kontsumitzen diren arteko prozesu luzean zehar zenbat janari botatzen den zakarrontzira.

Pieza guztiak mahai gainean jarriko ditugu.

Bost pertsonari laguntzeko eskatuko diegu² eta mahaiaren albo batean jartzeko esango diegu. Laguntzaile horiei eranskinetako txartelak emango dizkiegu³.

¹ Iturria: Fusión 2016. Europar Batasunari buruzkoak dira datuak (EB28).

² Hemendik aurrera, **laguntzaile** deituko diegu.

³ Saiatu arbelean idatzitako ordena berean ez jartzen: Ekoizlea – Prozesatzailea/Garraiatzailea – Janari-saltzailea – Jatetxea – Etxea

Laguntzaile bakoitzari eskatuko diogu bere txartelak adierazten duen pieza kopurua hartu eta zakarrontzira botatzeko. Ez du esan behar zer eragileren papera ari den betetzen.

Denek bukatu dutenean, mahai gainean geratu diren piezekin menditxo bat egingo dugu, eta zakarrontzira botatakoekin beste bat. Esango diegu azken horiek direla prozesu osoan zehar zakarrontzira botatako elikagaiak.

Hausnarketa

Bukatutakoan, galdera batzuk egingo dizkiegu, hausnartzen laguntzeko:

- Bi menditxoak konparatzeko eskatuko diegu. Esango diegu zer adierazten duen menditxo bakoitzak, eta Europan ekoiztako elikagaien herena botatzen dugula zakarrontzira. Zer sentitzen dute guztira zenbat janari botatzen dugun ikustean?
- Arbelean idatzitakora joko dugu, eta gogoratuko dugu laguntzaile bakoitzak zenbat pieza bota dituen zakarrontzira. Zuen ustez, elikadura-kateko zer eragile ordezkatzan zuen laguntzaile bakoitzak? Eman dezatela beren iritzia. Gero, laguntzaile bakoitzak esan dezala zehazki zein eragile ari zen ordezkatzan.
- Harrigarria iruditu al zaizue bakoitzak zenbat bota duen?
- Elikaduraren katean, zeintzuk dira janari gehien botatzen dutenak? Ikusten al duzue etxeetan botatzen dugula janari gehien zakarrontzira? Ez al zaizue harrigarria iruditzen?
- Ikusten al duzue kontsumitzaile gisa zenbateko garrantzia daukagun hainbeste janari botatzeko orduan?

Ekoizlea zara:

KENDU ____ PIEZA

Janaria prozesatzen eta banatzen duen enpresa zara:

KENDU ____ PIEZA

Janari-saltzailea zara:

KENDU ____ PIEZA

Jatetxe bat zara:

KENDU ____ PIEZA

Kontsumitzailea zara:

KENDU ____ PIEZA